

Mendetasunetik haratago

Fernando Fantova / Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuaren aurkezpena. BERASALUZE, A. y OVEJAS, M.R. (koord.): *Gizarte langintzako IV jardunaldiak. Mendekotasunetik harantz*. Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea.

(2011ko otsailaren 3)

Gaurko jardunaldian mendetasunaren gaia dugu ardatz, eta oso egoki eta erronka handia iruditu zait mendetasunaren ikuspegi eta adiera ezberdinei erreparatu izana. Egia esan, esku-hartze sozialaren edo politika publikoen eremuetan, azken urteotan, mendetasuna aipatu izan denean mendetasun funtzionalaz aritu izan gara, gehienbat; eta hain justu, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea mendetasun mota horri buruzkoa da. Arrazoi beragatik, autonomia hitza ere autonomia funtzionalaren eremura mugatu izan da.

Alabaina, mendetasunaren eta autonomiaren kontzeptuek ñabardura eta esanahi gehiago dituzte. Nire ustez, gizakiaren bizi-proiektua autonomiaren eta mendetasunaren arteko oreka-puntuan kokatzen da, hain zuzen ere, pertsonaren eta ingurunearen edo inguruneen arteko harremanekin loturik dauden autonomiaren eta mendetasunaren arteko oreka-puntuan. Alderdi funtzional horretaz gain, autonomiak edo mendetasunak beste alderdi asko ere izan ditzakete: ekonomikoa, afektiboa, fisikoa...

Askotan esan izan da gizaki egiten gaituena hain justu elkarmendetasun erradikala dela, hein handi batean, eta nire ustez egia biribila da hori. Haurtxo jaioberriak, beste animalien kumeekin alderatuz gero, askoz ere autonomia txikiagoa du. Hori dela-eta, beste gizaki batzuekiko interakzio luze eta bizia

izaten du eta interakzio horri esker gara gizonak eta emakumeak garen modukoak.

Mendetasun-egoera hori abiapuntu izanik, bizitzaren abentura autonomia lortzea da, hau da, nor bere burua bideratzeko, funtzionatzeko, bizirauteko eta abarrerako gaitasuna lortzea. Hala ere, giza proiektuaren xedea ez da norbanakoaren isolamendua; aitzitik, autonomia harremanen bidez lortzen da, beste pertsona batzuekin harremanak eginez, gizarte-sarean...

Esku-hartze soziala autonomiak eta elkarmendetasunak bat egiten duten puntu horretan kokatzen dela esango nuke. Pertsonari laguntzea du xede, autonomia —zentzu guztietan— areagotzearen baina, aldi berean, baita sare eta lotura sozialak osatzea ere, ibilbide indibidual eta kolektiboetan laguntzeko. Gaur egun, inoiz baino gehiago, esku-hartze soziala eta politika publikoak jabetu dira (eta egunetik egunera gehiago jabetzen dira) zeregin bikoitza dutela: pertsonaren autonomia sustatzea eta harreman-sarea garatzen laguntzea.

Batzuetan, asmo onez betiere, esku-hartze sozialetik eta politika publikoetatik babesa eman dugu baina horren ondorioz mendetasuna sortu dugu; gure esku-hartzearen eraginez sare komunitarioa suntsitu egin da. Gaur egun, ordea, “arriskuaren gizartea” esaten zaion honetan, jakin badakigu ezin izango dugula gizarte orekatu eta iraunkorra osatu, baldin eta ez badugu oinarri sendoa lortzen; hain zuzen ere, erantzukizun, gaitasun eta ekimen indibidualez osatutako oinarria, eta, aldi berean, harreman-ondasunen, laguntzen eta loturen sare trinkoa ere ezinbestekoa da.

Gaurko jardunaldi tekniko honen bidez gure ikuspegia lantzen eta hezten jarraitzea nahi nuke, geure gaitasun profesional eta politikoa areagotuz autonomia pertsonalaren eta garapen komunitarioaren arteko sinergiak bilatzen jarraitzeko. Gaur, hemen, aukerak eta ekarpen posibleak aztertu eta arakatu behar ditugu, elkarri eskua emanda, elkarren ondoan, kolektiboki aurrera

egiteko aukerak eta ekarpenak, elkarren mendeko garela onartuz eta autonomia osatuz, mendetasunetik haratago.

www.fantova.net